

“OXOBI”-REN MENDEURRENEAN

Bidarrain, 1988-III-27an

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Lambert, Bidarraiko jaun mera.

Jaun-Andreak:

Bidarrain biltzen da egun —eta bildu da, baita ere, aurreko egune-tan— Euskaltzaindia, euskararen Akademia. Eta beste deusi lotu aintzin, eskerrak eman nahi dizkitzut zuri, Bidarraiko jaun mera, eta bai Bidarraiko herriari ere, egin diguzuten harrera amultsuarengatik.

Badakizute, noski, zergatik heldu den Euskaltzaindia Bidarraira. “Oxobi” edo Moulier Bidarraiko seme prestu zenaren oroitzapen egitera, beronen sortzearen ehungarren urtea aurtan ospatzen denaz geroz.

Euskaltzaindia, Euskararen Akademiak, euskaltzale ospetsuen mende betetzeak etab. baliatzen ditu populuan euskararen aldeko zaletasuna eta atxikidura sustatzeko, jaun horien lanak gogoratzearekin batean.

Bidarra beti izan da euskaldun, eta gure gogo eta nahikaria da etorkizunean ere halaxe euskaldungoari atxikia izan dadin.

Bai. Munduan badira mintzaira handiak eta badira mintzaira fimiñoak. Guk nahi duguna da guztientzat toki bat egon dadin. Gure euskara honek ere izan dezala bere boza, bizi dadila, alegia, besteekin anaitasunean, guztiok elkarrenganako errespetua eta begirunea gordetzen dugularik.

Bidarrairen izena gogora ekartzen dugun orduko, hor ditugu hemen sortu edo hemen bizi izandako zenbait euskaltzaleren izenak: Oxalde, Adema, eta bereziki Oxobi. Baina jaun horien aipamena gaur ene ondolik maintzatuko diren jaunek eginen dute.

* * *

Nahi dut, ordea, hitzerdi bat esan, iragaitzaz bederen, mendiz bestaldeko euskaltzale handi bati buruz: Nicolas Ormaetxea “Orix”ri buruz,

alegia. Hura ere zenbait denboraz hemen bizia da eta Bidarraai aipatzen du bere liburuetan. Eta, gainera, aurten da beronen mendeburua ere. Bai. Oxobi eta Orixe urte berean sortuak dira, eta aurten, hain zuzen, ospatzen da bion mendeurrena.

Bidarrairi buruz mintzo da, bada, Orixe *Quiton arrebarekin* izeneko liburuan. Ameriketan zuen arreba horrekin hizketan ari da. Toka eta noka deitzen den elkarrizketa-moduan egina da liburu hori. Lurreko Eliza eta beste mundukoa nola elkarturik dauden azaldu nahi du, eta argibidetzat Bidarrain ikusi zuena dakar.

Honela dio, bada, pasarteak:

“Bi urtez bizi izan natxin Bidarrain, eta an ikusi yunat iñon baño biziago, bi Eliza auen elkartasuna. Erriko tokirik gafiñenean eta alaienean zeudin. Eliza guzia illarriz inguratutik zegon, batzuk apaiñago, besteak txi-roago; baña guziak txukun. Noizpenka garbitzen zetunate, goizean, naiz atsaldean; lore batzuk ipiñi ere bai, urtaro danean. Baña, batez ere, Umia-Saindu egunean, biaramonerako”

(Ikus *Eusko Gogoa* (1951), 9-10 z., 26 orr.)

Orixe, bada, hunkitua, gelditu zen Bidarrain bi Elizak, hemengoa eta gerokoa, nola dauden elkarrengandik hain hurbil eta hain elkarturik ikustearekin, eta hori da bere liburuan kontatzen diguna. Hunkitua batez ere hilerria hain maitekiro zaintzen duzuelako bidarraitarrek.

* * *

Oxobi da, ordea, oroz gain gaur ospatu eta gogoratzen dugun pertsonaia. Ezagutu nuen, bai, Oxobi Euskaltzaindiko gure batzarreetan, baina ez gehiegi; artean gaztea eta sarberria nintzen ni Euskaltzaindian. Esan behar da Oxobi 1930. urtean izan zela urgazle izendatua, esan nahi baita, bigarren mailako euskaltzain edo “académicien”. Euskaltzain oso edo lehen mailakoa, berriz, 1952. urtean.

Haritschelhar jaunak Akademiako bere sarrera-hitzaldia Oxobiri eskaini zion. Berak ezagutzen ditu, bada, ondoenik, Oxobiren artea eta lanak eta berari uzten diot Oxobiren potreta egiteko kargua. Alegilari bezala gailurtu zen batez ere Oxobi: hori ez dakienik ez da. *Gure Herria* errebits-taren sortzaileetarikoa ere izan zen. Gaur, damuz, hila den aldizkari horrena.

Axular-i buruz ere baditu Oxobik bertso batzuk, nik asko maite ditudanak. Harrian xixelatuak dirudite. Axular-en liburuak gu euskaldunontzat duen balioaz ongi jabetu zela Oxobi salatzen digute bertso horiek:

Eskerrak Axular!
Bihi, bazka, indar,

Egun eta bihar
Badakigu nun har:
 Zu baithan...
Lagunak, ez lokhar:
Aditurik elkar,
Dugun eskuara sar
Eder, jori, hazkar,
 Orotan.

Euskaltzaindiak eta gu guztiok ditugun helburu eta xede berberak, eta arrangura bera, adieraz ote zitezkeen bertso eder hauetan Oxobik egin duen baino hobekiago? Ez dut uste.

Bego, bada, hor. Neri ez zait gelditzen berriz ere eskerrak ematea beste lanik. Bidarraik beti euskaldun iraun beza, Oxobik nahi zuen bezala. Halabiz.

OXOBI OLERKARIA

Bidarrai, 1988-III-27

Jean Haritschelhar

Duela beraz ehun urte, hain zuzen 1888ko Apirilaren 7an, goizeko zazpi orenetan sortu zen Begieder deitu guarden kasernan Martin Jules Moulier, Oxobi-ren izen ordearekin euskal literaturan ezagutua den olerkaria. Aita, Jean Moulier, "Sous Brigadier des douanes" zen herriko etxeko paperek salatzen dutenaz, eta orduan 37 urteko gizona, ama aldiz "ménagère" deritzana, etxean egoiten zena beraz, 32 urteko anderea.

Ez da dudarik amak hazi zuela ez bakarrik bere bularreko esnearekin bainan ere euskaldun amek beren haurreri xaramelatzen zizkieten kantuekin. Ez dezagun ahantz ere denbora haietan Otxalde Bidarraitarrak zuen fama handia Euskal Herri osoan. Nola ez aipa ere Zaldubi apez olerkaria Bidarrain egona zela bikario eta Tomberrekaren bertsuak ez zirela oraindik ahantziak.

Halakoa zen euskal giroa orduan Bidarrain, giro horretan murgildu baita Oxobi, hala nola murgiltzen ziren Bidarraiko haur guziak.

Nahiz bere gaztaroa pasatu zuen, herriz herri guarda semeek pasatzen zuten bezala, edozoin herritan giro berbera ezagutu zukeen, horretan oinarritzen baitzen gazte baten egiazko euskal kultura.

Bigarren mailako estudioak egin zituen Larresoroko seminario tipian eta gero Naieko Seminario handian. Apeztuz geroz Hiriburun bikario, Dohoztirin eta gero Arrangoitzen erretor pasatu du bere bizi guzia, azken bi urteak iraganik San Josep apez xaharren etxean 1958ko Otsailaren 7artio hirurogoi eta hamar urtetarat ez zelarik oraindik heldua.

Bere apez eginbideetarik kanpo euskal letrak zerbitzatu ditu. Hamalau-eko gerla aintzinean jadanik agertzen zituen lehenbiziko olerkiak *Eskualduna* astekarian eta, dakidanez, Hiriart-Urruty zendu zelarik 1915-ean, esku ukaldi ona eman zion Oxobik *Eskualduna* astekariari, osagarriaren gatik ez baitzen gerlarat joan.

Gerla bururatu zelarik, gazte multzo batek 1921ean sortu zuelarik *Gure Herria* deitzen den agerkaria sortzaileetan aurkitzen dugu Oxobi,

Jean Saint Pierre, Jean Barbier, Louis Dassance, Elissalde-Zerbitzari, Dufau, Souberbielle eta bertzeen artean. *Gure Herrian* agertaraziko ditu bai olerki, bai artikulua premiatsu batzu. Heietan Otxalde ez ahantziz zioarik: “Sortzez Bidarraitarra nihaur eta bertze apez euskaltzale zombait bezala guarda seme, adixkide batzuer iduritu zitzaiole Otxalde zenaren bizi moldeaz eta kantuez oroitzarrienak bil nitzazkeela”. Hala egin zuen, Otxalderi emaiten ziola merezi zuen ohorea.

Alde baterat utzirik hitz lauza idazlea nahiago dut aztertu olerkaria, olerkigintzan izan baita, nere ustez, hoberena gure Oxobi eta euskal literaturan olerkariak iraunen baitu.

Hasi zen bertsularien arabera kantuak eginez doinua edo airea zuela laguntzaile, bere neurtitzak sortuz aireak eskaintzen zion neurrian, zazpi eta seiako neurtitzetan. Olerki horiek aurkitzen dira “Boz-oihu, deiadar, nigar” deitzen den bilduman eta gehienak *Eskualdunean* agertu ziren hamalauko gerla aintzinean.

Adibide gisa huna Otxalderi eginikako bi bertsu:

“Bidarraiko donadoaren airean”

Bidarrain sortua nuk mendien artean,
Hik ezagutu dukan etxeño batean,
Hire koplak ikasi ditiat haurrean,
Barna sarturik zaudek ene bihotzean.

Barka dauzkidak beraz galde bat edo bi:
Apezak baitzuen maiz oilar, bildotx, erbi,
Denboran hik omen duk lagundu Zaldubi.
... .. Zerutik halaber laguntzak Oxobi!

Hor daude lekuko erabiltzen zituen aireak hala nola: “Lurraren pean sar nindaiteke” (10 + 8), “Ortziraletan duzu Garruzen merkatu” (7 + 6), “Mendian zoin den eder” (7 + 6), “Ttiki ttikitik aitak et’amak” (10 + 8), “Oilarra kukuruka” (7 + 6), “Sor lekua utziz geroz” (berezia), “Salbatore gora da” (7 + 6), “Adio izar ederra” (7 + 6 berezia), “Ume eder bat ikusi nuen” (10 + 8), “Kattalin ttuku ttuku” (7 + 6), “Gazte gira gazte hogoi urtetan” (7 + 6 berezia), “Amikuzeko Gilen” (7 + 6 berezia), “Belatxaren airea” (10 + 8), “Ai, ai, ai mutila” (7 + 6), “Kaiku”, “Hamar manamenduen airea” (7 + 6), “Iragan besta biharamunean” (neurri berezia), “Jeiki Jeiki etxeakoak” (8 + 7), “Goizean goiz jeikirik” (7 + 6).

Zerrenda luze hau emaiten balinbadut, erakusterat emaiteko da ildo klasiko bat segitzen zuela, bertsulariena edo kantu egileena, olerkiak eta kantuak bat egiten zutelakotz harentzat.

Denbora berean ikus daiteke zer zen Oxobiren euskal kultura, nola oinarritzen zen ahozko literaturan eta, horretan oinarriturik, sortzen zituen

kantu eder eta aberatsak, batzuetan hunkigarriak, hala nola “Ama” deitua, bertze batzuetan irri egingarriak, adibidez, Mari Katalin, Parisetik etorritako euskaldun nexka fartsuntzia:

Errekanbordako Mari Katalin
Barda Parisetik etxera da jin:
Buruan, jasan ahala, saski bat lore:
Xuri, gorri, beltz, urdin:
Beso, lepo, bapo bularrak arin...
Hiritar andrek dituzte berdin.

Hautatu balinbadut bertso hau, nahiz aire bati atxikia dagon, da ezagut daitekela neurtitz erne batzuetan agertzen ari dela Oxobi-ren bertze manera bat alegietan ikusiko dena. Hitz laburrak bi silabatakoak edo silaba batekoak bat bertzearen ondotik dabilta, emaiten diotela neurtitzari ernetasun eta bizitasun berezi bat:

Xuri, gorri, beltz, urdin
Beso, lepo, bapo bularrak arin.

“Alegiak” eta “Haur ele haurrentzat”, deitu bildumetan Oxobi agertzen da egiazko olerkari. Alegietan gaiak ezagutuak dira, jakinez geroz La Fontainen ondotik dabilala. Bainan ez da bertze euskaldun alegia egileak bezala jokatu, hartuz La Fontaine eta itzulpenak eginez. Hartu du gaia, bereganatu du, bere gogoan erabili eta hizkuntzak emaiten zizkion ahalekin berriz moldatu, erran nahi baita osoki euskaldundu mamiz eta azalez.

Zonbait etsenpluren hartzeko hona nola presentatzen dituen belea eta axeria:

Belea:

Behin bazen bele bat
Bele bat beltza
Pika bezain ohoina
Bainan zozoa.

Argi dago jostatzen dela Oxobi kontsonante ozen zerrenda horrekin, *b* horiek, trumilka, zazpi aldiz agertuz bi neurtitz ttipi horietan.

Argi dago ere belearen kalitate edo akatsak (beltza, ohoina, zozoa) beti neurtitzen azken hitzak direla hobeki azpimarratzeko tokian.

Axeria:

Axeri bat ttipattan,
ttipa ttipattan,
Zurtxurira jin zaion
gosea tripan.

Hemen baliatzen du harrabots hitz bat (bertze batzuk onomatopeia deitzen dute) ttapattan, harrabots hitz hori euskaldunek erabiltzen dutela egunero, erakusteko urratsaren lasterra eta ernetasuna. Gure begien aintzinean daude biak belea eta axeria, hitzen bitartez eta hitzek daukaten hotsari esker.

Konparaketa bat egin nahi nuke La Fontaine-ekin, parekatuz frantsez eta euskaraz axeriaren lausenguak.

Eh! bonjour Monsieur du Corbeau,
 Que vous êtes joli, que vous me semblez beau!
 Sans mentir, si votre ramage
 Ressemble à votre plumage
 Vous êtes le Phoenix des hôtes de ces bois.

Egun on, bele jauna
 Ori zure soina!
 Kanta hain eder balitz
 Zinez dautzut hitz:
 Ez liteke xoririk
 Ez, ala fede,
 Ederrez joan lironik
 Zuri, jaun bele.

Zoin hoberena? Elgarren bete daude, bakoitza arizana baita bere hizkuntzak eskaintzen zizkion ahalak osoki baliatuz.

Bertze adibide bat hartuz, ikus genezake nola elgarren aurka ezarzen dituen erbia eta apoharmatua.

Erbia presentatzen digularik, hiru zatitan egina da lehen neurtitza, bostetan bigarrena, hitzak bi silabatakoak, erakusterat emaiten dutela nolakoa den erbi xoroa:

Erbitto bat: beharri xut, buztan labur,
 4 4 4
 Ausik, itzul, beha, jauzi, beti beldur
 2 2 2 2 4

Apoharmatuaren urrats neke eta pisua aldiz, bi neurtitz luze batzuen bitartez adiarazten digu:

Jauregiko baratzearen jabe, ixil,
 Apoharmatu handi bat nekez dabil,
 Etxea baderamala...

Hirugarren neurtitzak, nahiz ez duen bertze bien luzetasuna, bost silabatako aditzaz horniturik (baderamala) hobeki sendiarazten digu apoharmatuaren urratsaren nekea, bururatzen duelarik presentatze hori bertze arrabots hitz batzuekin:

Panttupla pan plun panpala.

“Balujan” da gosez erdi hilik dagoen zakurra, “Guardian” delarik zakur lodi eta joriaren izena. Halaber “Aujame” garratoin gaskoina urez ur, Baiona utzirik –garratoin hiritartua naski– Uztaritzerat doa “Xopolo”-ko errekaraino “Biribil” jaunari –garratoin euskalduna Biribil– bisitaño baten egiterat.

Ikusten duzuen bezala badute “Alegiak” eta “Haur ele haurrentzat” bildumetako olerkiek behar den mamia. Dudarik gabe, hor zauzkan gogoan, horiek idazten zituelarik, Euskal Herriko haurrak. Horiek hola, errepikatuko dut duela orai 25 urte erraiten nuena ene Euskaltzaindiko sarrera-n Oxobi-ren alkian jartzerat nindoalarik:

“Nahi balinbadugu gure euskaldun eginbidea osoki bete, aintzinekoek utzi daukuten ontasan ederrez behar gira baliatu, behar ditugu erabili. Hori ez eginez, bigarren aldikotz hilen da Oxobi eta izanen gira, gu, haren hiltzaleak.”

Badu orai ehun urte sortu zela, badu hirurogoi ta hamar urte zendu zela. Bere bizi guzian euskararen zerbitzari zintzoa eta argia izanik, zerbait utzi dauku eta euskarak diraueno beti norbaitek irakurtuko du edo kantatuko.

Euskararen zerbitzari izanik, euskarak berak zerbait zor dio. Halaxe erraiten zuen Labèguerie-k Oxobi-ren hil-hobiaren aintzinean bertsu eder batean:

Aingeru-hegal ixil bat jin zauzu bila gau batez,
Eta orai, iduri du, haize hegoa entzunez,
Intzirika dagoela Euskara oinazez.

BIDARRAI, EUSKARA ETA EUSKALTZALEAK

Bidarrai, 1988-III-27

Piarres Charritton

Bidarrai-en berri bilatzen dugularik hiztegieta, honelako zerbait aurkitzen dugu: Errobi-ren ezkerretarik, Iparla-ren maldetan, Orzaize-ko ibarrean, Lapurdi, Baxenabarre eta Baztan-errekaren mugetan jarria da Bidarraiko herria. 1886 an 1121 bizilagun zituelarik, gaurko egunean, postetako egutegiaren arabera 631 dauzka. Menturaz beherago eroriko zen kopurua, mendialdeko asko herritan bezala, Bidarraiko herriak ez balu ukan auzoan, mugaren bestaldetik, Erratzuko herriak daukan Aritzakun-eko auzotegia. Aritzakun-etik sartu baitira Bidarraiko etxalde askotako etxe-kandere, auzo horretako alabak, Parise, Bordele edo Baionara buruz joanak ziren Bidarraiko nesken ordari. Eskerrak beraz gaur Bidarraitik Aritzakun-i.

Bidarrai-tik Baionara 35 kilometro badira; Baigorriara 19 eta Donibane Garazira 18. Hazkuntzatik eta laborantzatik bizi da Bidarraiko jende gehiena, baina badute ere Bidarrain aspaldian, arraintegi bat eta naski harrobi bat. Herri honetan iragaiten zaie, zorionez —ala zorigaitzez!— Donibane Garaziko tren.

Ikusgarria da Bidarrain, XII. gizaldiko eliza erromanikoa, oroitarazten diguna Orreagako kalonje aberatsen gomendio eta eskuko zirela, aspaldiko denboretan, eliza hori eta herri hau guzira, Lapurdiko Lekuine, Hazparneko eliza eta beste ontasun frango bezala. Geroztik historia luzea bizi izan du herri honek, hala nola frantses soldaduek tirokatu, bai, tirokatu zutelarik, duela berrehun urte, Bidarraiko elizako kurutzefika, baina bego (1)... Nola ez aipa halere Harpeko Saindua, bere ur sendagarriri esker Bidarrairen fama urrun hedatu baitu. Anuntxi Arana adixki-deak berriki bildu eta argitaratu digu-eta haren historia (2).

(1) P. HARISTOY: "Les paroisses du Pays Basque pendant la période révolutionnaire", T. II, 172.orr.

(2) A. ARANA: "Bidarraiko Harpeko Saindua", *AEB Haranburu*, Donostia, 1985.

Bidarrain mintzo diren hizkuntzez, hiztegiek aipu dituzte euskara eta frantsesa. Espainolik ez omen da. Euskara aldiz frantsesari nagusi eta frantsesa baino nahiago, lehen segurik. Orain, nik ez dakit (3).

Dena dela, euskara zela nagusi Bidarrain, iragan mendearen hastean bederen, badugu lekukotasun bat ohargarria, Wellington Angeles aintzindari aipatuarena. Hemen gaindi zebilela Napoleon-en soldaduen ondotik, honelako abisua argitaratu zuen, 1814 ko Urtarrilaren 28 arekin:

“La conduite du peuple des villages de Bidarry (sic) et Baygorry m’a fait la plus grande peine. Elle est différente de celle de tous les habitants du pays et ils n’ont pas le droit de faire ce qu’ils font... Je ne permettrai pas qu’ils fassent tour à tour le rôle d’habitant paisible et celui de soldat...”.

Ez du horrek iruzkin beharrik, baina badakigu abisu hori emana izan zela frantsesez eta euskaraz, horrek berak erakusten bait digu euskara beharrezko zeukatela herri honetan aintzindari arrotzek berek. Damurik ez baitugu eskuratu ahal izan euskarazko testua (4).

1814etik bost urteen buruan, 1819an hain zuzen, badugu ordea Bidarraitar baten euskara ezagutzeko suertea. Nork ez du ezagutzen alabaina 1815eko *Bidarraitarraren kantua*, askok Oxalde-ren kondu emaiten dutena, baina egiaz Ñarro edo Ñabarro, Bidarraiko beste seme batek osatu zuena?

“Mila zortzi ehun hemeretziari, urriaren hilaren hemeretziari,
Umore ona nuien haien kantatzian
Gazte ta alegera trankil bihotzian,
Ontasuna frango badut intresian,
Deusik ez etxian,
Orai bezain aberats nintzen sortzian”.

Deus guti dakigu zorigaitzez, Ñarro delako lehen pertsulari bidarraitar horretaz, nahiz Francisque Michel-ek, 1857ko *Le Pays Basque* deitu liburuan haren pertsu horiek emaiten dituen (5).

Delako “Bidarraitarra” horretaz beste kantu bat ere badoa Ñarro-ren kondu, izena baitu “Bi arrano hiru beleri”; Frantzia eta Errusia dira hemen bi arrano elgarren adiskideak, beleak aldiz haien etsaiak Ingalaterra, Prussia eta Austria, dirudienez (6). Ez dugu zeren harri gure pertsularia horrela politikan sartzen ikusteaz. Pertsulariek egundainotik asko

(3) I. ESTORNES Z.: “Bidarray”, *Enciclopedia General Ilustrada del P.V.*, 1974.

(4) P. HARISTOY: op. cit., 174.orr.

(5) F. MICHEL: “Le Pays Basque”, rééd. *Elkar*, Donostia, 1981, 426.orr.

(6) A. ONAINDIA: *Mila Euskal Oterki Eder*, Larrea (Zornotza), 1954, 490.orr.

maite izan duten gaia da-ta politika; gero, nork bere gisa, erabili izan badute ere; nahiz maizenik “nora haize hara aise”.

Dena den, iduritzen zait, gure lehen pertsulari Bidarraitarren pertsu bakar horiek hurbiletik iker bagenitza, aurki geniekeela ondotik etorri diren Bidarraitar guziek beren pertsuei eman ohi dieten marka berezia: “Umorearen marka”. Nork uka alabainan Oxalde, Oxobi edo Iraxet-en “umorea”?

1814ean, Bidarra Manguianean sortu zen Janbatista Oxalde, Joanes Oxalde eta Joana Etxexuri-ren semea, mende osoa ezbaian bere pertsuez loratuko duen pertsularia, 1897an hil baitzen, Bidarra Sastrianean.

Anartean Joanes Oxalde ilagin gazte zelarik Aiherran ezkondu zen Marie Peydouvan gaztearekin, honek hamaika haur eman baitzizkion. Gero 1838an guarda sartu zen, Garro-ko jaunak eskukaldia emanik. Ofizio horren gatik asko herri kurritu zuen Larzabaletik Beskoitzera, Heleta, Bidarra, Lekorne, Makaia eta Saran barna. Guardagoa utzi zuenean, postaren zerbitzuko hartu zuten nahiz ez zekien frantses handirik. Gerorago joan zen Ameriketara, Argentina-ko Entre-Rios-eko Gualaguay hiri nagusira, bere emazte ta hurrekin. Jose Mendiague pertsulariak honela agurtu zuen hara heltzean (7):

“Gualaguai-ra jin zauku guarda bat, Oxalde,
Bi bertsu emaiteko ez baita herabe,
Ezagunak girade lehenago ere,
Hartakotz ni ez nauke salutatu gabe,
Banuke kuraie, gazte izanik ere,
Gertazen bagire,
Gau baten pasatzeko lokartu gabe.”

Ez zen ordea Ameriketara laketu Oxalde, eta sorterrira itzuli zen beste pertsulari aipatu bat bezala, Iparragirre bera bezala, familia guzian han utzirik. Hil berria jakin zuelarik, Jose Mendiague-k beste zenbait pertsu ontu zizkion Ameriketatik (8):

“Oxalde-ri hasten naiz bi bertsu kantatzen,
Esperantzan nauela zerutik aditzen,
Nahiz gure aldetik apartatua den,
Obra eder frango utzi dauku hemen,
Haren izena aise ahantz ez dadien...

Euskal herrien alde egin du indarra,
Ikusiz bazuela zerbaiten beharra,

(7) J. MENDIAGUE: *Zazpiak Bat, Eskualdun Kantuak*, Buenos Aires, 1900, 106.orr.

(8) J. MENDIAGUE: *Ibid.*, 64.orr.

Omone onarekin sortu zen mundura,
Beti ibili izan da batetik bestera,
Gazte eta zaharren alegeratzera...”

“Omone oneko” gizona, “batetik bestera beti ibilia” eta ere Oxobik idatziko duen bezala, zen bezala erraiteko “guarda bihurria” (9), “gazterik, airatua, pilota maite, arnoa ez hastio, bertsulari famatua, kontrabanda odolean” zuelakotz askotan ofizioa galtzer izan zuena. Horiek oro amenomenka bederen jakin zituzketen Ameriketara eta jakin ere azkenekotz Oxalde hil ondoan ez zuela Hargindeguy apezak Bidarraiko elizan sartze-
ra utzi haren gorpua. Hona beraz, ehortzeta hits hori gogoan, Mendiague-k *Montevideo*-tik bota zion azken pertsua (10):

“Hau da nik Oxalde-ri eman dudana meza,
Bakotzak bere partez hoinbertze egin beza,
Inkomodatu gabe elizan apez,
Zoin gure etxetarik eginez otoitza:
Jainkoak bertsulariak zeruan sar bitza.”

Ez dugu horren gatik jakinen zertan zuen azkenera Oxaldek “inkomodatu” Bidarraiko apezak. Ala aments familiaren Ameriketara uztea ez zitzaien iduritu barkakizun? Egundainotik izan baitira, orain bezala lehen ere, erretore zorrotzak eta bahe larriagoa darabilaten erretorak (10). Dena dela, oroitu behar dugu erretore bat bederen zinez adiskide izan zuela Oxalde pertsulariak, Adéma Zaldubi erretorea.

Gratien Adéma, 1828an sortua zen Senperen. Gazterik hasi zen Larresoroko seminarioan, Jean Baptiste Elissamburu bere ikaskidearekin, euskal pertsu ederrak ontzen. Apezte ondoan Hazparnen apezlagun egonik, 1860an Bidarraiko erretore izendatua izan zen eta han egon hamabi urte. Geroago Atarratzeko apeznausi izanik eta Baionako kalonje, bere pertsu, kantu eta kantika miresgarriei esker Adéma Zaldubi xaharrak ospe handia bilduko du zazpi Euskal Herrietan.

Baina Bidarrain apez zelarik hain zuzen, Gratien Adéma, eliza lanean ari izan bazen ere oroz gaintetik, apezetxea eraikiz, eliza berrituz eta, jeinua baitzuen omen, zur lan zenbait bere eskuz eginez, ezagutzak eta adiskidantzak egin zituen herriko seme pertsulariarekin, Janbattit Oxalde-
rekin. Elgarrekin zuten aurkeztu 1867ko lore jokoetara “Xantxundegiko” edo “Mehetegiko” xakurraren kantu famatua. Zaldubi-ren paperetan irakurri dugu, kantu hori “Oxalde Bidarraitarrak marruskaturik, Zaldubi Senpertarrak berregindurik, paratua izan zela neurtitz gudukotzat, baina

(9) “Oxobi-ren lan orhoitgarri zonbait”, *Gure Herria*, Baiona, 1966, 197.orr.

(10) J. MENDIAGUE: op. cit., 65.orr.

ez zuela garait-saririk irabazi” (11). Ez gaitu ordea puntu honek harritu-ko, egundainotik gertatu baita saria hartze duenak ez ukaitea.

Beste apez zenbaitek ere merezi du oraino Bidarraiko euskaltzaleen lerroan sartzea, hala nola mende honen hastapenean herri honetan erre-tore eta laguntzale ziren Olçomendy eta Larralde bi apezek. Ez zuten hauek, dakidala, ez pertsurik ontu ez libururik idatzi, baina Frantziako gobernuaren izenean Pabeko prefetak, Francière jaunak, debekatu ziete-larik Euskal herrietako apez guztiei beren katixima euskaraz emaita herriko haurrei, Bidarraiko bi apezek ez zuten amore eman. Eta ez zutelakotz frantsesez ari nahi, Pabeko prefetak zigortu zituen eta beste euskaldun apez zintzo askori bezala beren hilabeteko soldata kendu zieten, 1904 eko Apirilaren 18ko dekretuz. Gertakari horiek, ez direlarik bada aspaldikoak, gaur ahantziak dira edo ixilpean atxikiak, ez ote lukete bada argitzen ahal gaurko historiaren hainbat alderdi? (12).

Nola ez aipa ere Bidarrain Pierre Eyheramendy apeza? Maulen sortua zen, 1891ean, eta Alduden egona, hona etorri aintzin, 1924ean. Hemen bost urte iragan ondoan, Duhau “apez handia”ren ondoan, 1929 an Donazaharrera igorri zuten orduko “apez tipia”. Geroago guhonek ezagutuko dugu Idauze-Mendikotako erretore. *Méthode Pratique de Bas-que* izeneko liburutto bat argitaratu zuen Parisen Eyheramendy apezak, 1929an. Aitortu behar dugu gogorki jorratu zuela orduan delako liburua Piarres Lafitte gazteak (13), baina guztiok badakigu tresna txarrekin egi-ten dela lan onik ere —eta alderantziz— horra zergatik euskaldun berri askok Eyheramendy-ri zor dion menturaz, aspaldiko urteetan, euskararen alorretan lehen urratsak egitea. Dena den, lehen liburu horren ondotik ziberotar apez gazteak argitaratu zuen bigarren mailako “Cours Moyen”, 1930ean eta hirugarren mailako “Cours Supérieur”, 1938an.

Ondotik aipatu behar dugu gero Nikolas Ormaechea, “Orixe” (1888-1961) euskal idazle famatua (14). Iruñea San-Kristobal-eko presondegi-tik ihes egin ahal izan zuelarik, 1937an, mendiz honaindira etorri zen eta behin Bidarrain kokatu, Noblia izeneko hotelean. Bidarrain kokatzeko aitzakirik aski bazuen Orixek, bere askazi zenbait baitzen ordukotz hemen-goturik. Horra nola gaurregun hiru familia badauden Bidarrain, Ormae-chea, Ormaechea, Ormacha, hiru izen desberdinekin hiruak ahaide.

(11) P. CHARRITTON: “Gratien Adéma-Zalduby-ren bizia ta lanak”, *Mundaiz*, Donos-tia, n.º 29, 1985, 47-53.orr.

(12) J. URKIZA: “Frantziako Estatuak Euskararen eta Euskal Elizgizonen aurka, 1889-1906 bitartean egin...”, *Karmel*, Larrea (Zornotza), n.º 183, 1987, 76.orr.

(13) P. LAFITTE: “Pour 25 francs”, *Gure Herria*, n.º 9, 1929, 376-380.orr.

(14) A. M. LABAYEN: “N. Ormaetxea Orixe, 1888-1961”, *Euskera*, Bilbao, 1961, 345-347.orr.

Beste euskaltzale ezagun bat aurkitu zuen Orixek orduan Noblia hotolean, hura baitzen Philippe Veyrin artista jakintsua (1900-1962) (15). Atsegin genuke jakitea —nik bederen— nola elgar aditzen zuten, biek elkor kutsua baitzuten bat gorputzez elkorra, Veyrin, bestea izpirituz naski. Lekuko batek idazten zigun alabaina: “Orixek ez dut ezagutu, Ormaechea bai. Ez genekien zer izenordekin eta zer barnatasuneko idazlea zen. Hobeki ezagutzen genuen erdi-apez zen gizon bitzi bat, dena jakitate, baina erran nahi zituenen erraitera uzten ez baginuen, berehala oiesten zena. Gertakari latz batez agertu zen zer bihotzeko gizona zen eta egiaren alde ez zuela nehoren beldurrik” (16).

Hona gero Jules Moulier apeza (1888-1958), gaur ohoratzen dugun Oxobi. Honetaz ederki hitzegin baitigu Jean Haritschelhar-ek (17), nik bakarrik erranen dut Oxobi-ren lanak berrargitaratuko direnean, haren oroigarri argitaratu zen lehen liburu hura, nahi nukeela osa dezaten *Gure Almanakan*, *Eskualduna-n*, *Euzkadi-n* eta *Gure Herria-n* agertu ipuin, artikulu ta hitzaldi zenbaitekin.

Bidarraiko euskaltzaleen aipamena egitearekin, ez nagoke bada beste izen bat aipatu gabe: Alantxerriko *Maite Barnetche-n* izena (1941-1986). Zilegi bekit zauriak berritu gabe, Maite-ren sorterrian bi gauza erraitea: 1.ik, emazte gazte horrek erakutsi digula nola tresna berrienez baliatu behar den gure mintzaira xaharra emaitza aberatsenak ontzeko. Berehala gogoratzen baitzait, Xalbador zenaz, Maitek eskaini zigun emanaldia. 2.ik, bide berrien urratzeak ustegabeko trabak dakartzala betitik, baina trabak--trabatei, Maitek jakin du behar-orduan ororen gainditzen. Oroit naiz salatu zidala nola buruzagiek debekatua zioten Piarres Larzabal Zokoako apezaz egina zeukan emanaldia agertzea, baina lana egina zegoen eta Piarres Larzabal joan zaigularik Maite zenaren lan ederra ikusteko baimena eman digute Frantziako telebistako demokrata handiek (?).

Azkenik badut ere aipatzeko aspaldiko laguna dudan Bidarraitar bat. Duela 66-67 urte hortxet, Elixaldean sortu zen eta apeztu zenez geroztik Landes-etan bizi da-eta gaurregun Buglose-ko misionesteian. Ez du ordea behinere Bidarraiko euskara ukatu. Izaitekotz bai bere bizi guzian zerbitzatu. *Herria* hasi zelarik Lafitte zuzendaria laguntzen zuen, Chilhar izenarekin pilotako berriak emanez. Geroago berriz Piarres Iparla delako baten sinadura guztiz ezaguna egin zuen eta azken urte hauetan *Herria-*

(15) G. EPPHERRE: “Hommage à M. Philippe Veyrin”, *Gure Herria*, n.º 4, 1962. Bestalde J. Cabillon, Bidarraiko auzapez ohiari zor diot, beste zenbaiten artetik, berri hau ere.

(16) Jean Pierre Irachet: Ohorezko euskaltzain berriaren gutun batetarik. Hor aipu duen “gertakari latz” hori zer izan zen ez dugu jakin.

(17) Ikus aintzinaro J. Haritschelharren hitzaldia.

-ren irakurle frangok berezi dituzte Otto Piarre-ren oroitzapen, ixtorio eta pertsu bipilak.

Uste dut beraz denek hemen atsegin izanen dugula orain aita Villasante gure euskaltzainburuari uzten badiot hitza, berak erran diezagun nola Jean Pierre Irachet Elixaldeko semea, Iparraldeko euskal idazle hoberenetarik den, ohartu dela Euskaltzaindia (18).

(18) Orduan aita Villasante Euskaltzainburuak jakinerazi du Euskaltzaindiak bere Martxoko bilkuran, Martxoaren 25ean Bidarrain, aho batez izendatu duela Jean Pierre Irachet, bere euskal idazkien gatik Euskaltzain Ohorezko.